Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordetza.

Zerbitzu Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria–Gasteiz (Araba)

h) Segurtasun-neurrietan eskatu beharreko maila:

Oinarrizkoa.

3.1.– Prozedura judizialak (aldaketa).

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Arau-hauste penalei edo administrazioko arau-hausteei dagozkien datuak, identifikazio- eta transakzio-datuak.

4.– Administrazio Elektronikorako eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritza.

4.1.– Erregistro-liburua (aldaketa).

f) Fitxategiaren erantzukizuna duen organoa:

Administrazio Elektronikorako eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritza.

Viceconsejería de Administración y Servicios.

Dirección de Servicios.

C/ Donostia–San Sebastián, n.º 1.

01010 Vitoria–Gasteiz (Álava)

h) Nivel exigible respecto a las medidas de seguridad:

Nivel básico.

3.1.– Procedimientos Judiciales (Modificación).

d) Estructura básica del fichero:

Datos relativos a la comisión de infracciones penales o administrativas, datos identificativos y de transacciones.

4.– Dirección de Administración Electrónica y Atención a la Ciudadanía.

4.1.– Libro de Registro (Modificación).

f) Órgano responsable del fichero:

Dirección de Administración Electrónica y Atención a la Ciudadanía.

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### 3969

152/2006 DEKRETUA, uztailaren 18koa, Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua aldatzen duena.

Martxoaren 29ko 58/2005 Dekretuaren bidez –Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2005eko apirilaren 19an argitaratua- Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartu zen.

Estatuko Administrazioak aipatutako erregelamenduaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen erregelamendu horretako 3. artikuluak ordenamendu juridikoa eta, Gizarte Segurantzaren alorrean, Espainiako Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko eskumen-banaketaren printzioa urratzen zituela jo baitzuen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak 2006ko martxoaren 8an emandako epaian Estatuaren Administrazioak aurkeztutako administrazioarekiko errekurtsoa onetsi du, baita Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamenduko 3. artikulua baliogabetu ere.

Hala bada, dekretu honen bidez Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamenduko 3. artikulua alda-

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### 3969

DECRETO 152/2006, de 18 de julio, de modificación del Reglamento de la Ley de Cooperativas de Euskadi.

Mediante el Decreto 58/2005, de 29 de marzo, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco de 19 de abril de 2005, se aprobó el Reglamento de la Ley de Cooperativas de Euskadi.

La Administración del Estado interpuso recurso contencioso-administrativo contra el Reglamento citado, por estimar que el artículo 3 del mismo infringe el ordenamiento jurídico y el principio de distribución competencial en materia de Seguridad Social entre el Estado y la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, Sala de lo Contencioso-Administrativo, de 8 de marzo de 2006, ha estimado el recurso contencioso-administrativo de la Administración del Estado y ha declarado la nulidad del artículo 3 del Reglamento de la Ley de Cooperativas de Euskadi.

En vista de lo anterior, mediante este Decreto se procede a modificar el artículo 3 del Reglamento de la Ley

tzen da 2006ko martxoaren 8ko epaiari egokitze aldera.

Beraz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren proposamenez, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusiari entzun ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorrita, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko uztailaren 18an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamenduko 3. artikulua, «Langile Autonomoen Erregimen Bereziari atxikitako bazkideak» tituluduna, aldatzea.

Martxoaren 29ko 58/2005 Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamenduko «Xedapen Orokorrak» I. kapituluko 3. artikulua honela geratzen da:

«3. artikulua.– Gizarte Segurantzari langile autonomo gisa atxikitako bazkide-langileak.

Lan elkartuko kooperatibek euren estatutuetan bazkide-langileak kasuan kasuko erregimen bereziko langile autonomo gisa bere egitea erabaki badute Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateginak –ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartua- laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorrita, beren gain hartuko dituzte bazkideen kuoten ordaindu beharra eta betebeharrak, bazkideak kooperatibetan eta zerbitzaldian dauden bitartean; beti ere horrela jasota badaukate estatutuetan. Hala ere, hori ez da eragozpen izango Gizarte Segurantzari dagokion erregimenaren araudia ezartzeko. Zenbatekoak ez dira ordainduko lansari-aurrerakin gisa, eta Legearen 66. artikuluan definitutako gaindikin garbia zehazterakoan, kontusail kengarritzat joko dira.»

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko uztailaren 18an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

de Cooperativas de Euskadi, para adecuarlo a la sentencia citada.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, oído el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, de conformidad con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 18 de julio de 2006,

DISPONGO:

***Artículo único.***– Modificación del artículo 3 del Reglamento de la Ley de Cooperativas de Euskadi titulado «Socios adscritos en el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos».

El artículo 3 del Capítulo I, «Disposiciones Generales», del Reglamento de la Ley de Cooperativas de Euskadi, aprobado por Decreto 58/2005, de 29 de marzo, queda redactado de la manera siguiente:

«Artículo 3.– Socios trabajadores adscritos a la Seguridad Social como trabajadores autónomos.

Las cooperativas de trabajo asociado que, de acuerdo con lo establecido en la disposición adicional cuarta del Texto Refundido de la Ley General de la Seguridad Social, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/1994, de 20 de junio, hubieran optado en sus estatutos por asimilar a sus socios trabajadores como trabajadores autónomos del régimen especial correspondiente asumirán, en el caso de que así se hubiera establecido en sus estatutos, la obligación del pago de las cuotas y obligaciones de los socios durante su período activo en las cooperativas, sin perjuicio del sometimiento a la normativa rectora del régimen correspondiente de la Seguridad Social. Las cuantías abonadas no formarán parte del anticipo laboral y tendrán la consideración de partida deducible para la determinación del excedente neto definido en el artículo 66 de la ley.»

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de julio de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.